BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

4427

EBAZPENA, 2011 uztailaren 19koa, Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariarena, «CUMAFOR» ENSren desegitea eta deuseztapena Eraldaketarako Nekazaritza Sozietateen Erregistroan inskribatu dela argitara ematekoa.

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren egitura organikoa eta egitekoena finkatzen duen abenduaren 22ko 629/2009 Dekretuaren bidez, Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzari esleitu zitzaizkion eginkizunak betetzeko, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Eraldaketarako Nekazaritza Sozietateen Erregistroa sortu zuen martxoaren 14ko 53/1983 Dekretua kontuan hartuz.

Eta eraldaketarako nekazaritza-sozietateak arautzen dituen abuztuaren 3ko 1776/1981 Errege Dekretuan, bereziki 13. eta 14. artikuluetan, eta aplikatzekoak diren gainontzeko arauetan finkatutakoaren arabera, honako hau

EBATZI DUT:

Argitara ematea egoitza soziala Arangizen (Araba) daukan «CUMAFOR» eraldaketarako nekazaritza-sozietatearen (zk.:E-138) desegitea eta deuseztapena 2011ko uztailaren 19an inskribatu dela Euskal Autonomia Erkidegoko Eraldaketarako Nekazaritza Sozietateen Erregistroan. Argitalpen hau, bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Eraldaketarako Nekazaritza Sozietateen Erregistroko Inskripzio Liburuaren ondorioa da.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko uztailaren 19a.

Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendaria,
MARÍA PILAR SANTAMARÍA MARTÍNEZ.